



A K T A

Aiarako Kuadrillaren **TOKIKO GOBERNU BATZARRAK** telematikoki egindako ohiko bilkurarena,

2021eko urriaren 6koa

Organo honetako kideen bilkura telematikoa egin da bideokonferentziaren bidez **13:07** denean, eta jarraian zerrendatzen diren batzarkideak telematikoki elkartu dira **ohiko bilkura** egiteko **lehenengo deialdian**. Aiarako Kuadrillako Tokiko Gobernu Batzarreko presidente **Encina Castresana Astarloa andrea** izan da bilkuraren burua eta Gianfranco Ghiro Alonso jauna, behean izenpetzen duena, aritu da aldi baterako idazkari lanetan.

Jarraian aipatutako jaun-andre batzarkideak bideokonferentzia saiora konektatu dira: Batzarkideak:

Encina CASTRESANA ASTARLOA and. (EAJ-PNV)
Jon ESCUZA DEL CAMPO jn. (EAJ-PNV)
Gentza ALAMILLO UDAETA jn. (EAJ-PNV)
Txerra MOLINUEVO LAÑA jn. (EAJ-PNV)
Ander AÑIBARRO MAESTRE jn. (EAJ-PNV)

Ez da bertaratu eta ezin etorria justifikatu du:

Joseba VIVANCO RETES jn. (EH BILDU)

Ez dira bilkurara bertaratu Talde Politiko Batzarkideetako bozeramaileak, gonbidatuak izan arren.

Horretaz gain, telematikoki Arbaizagoitia andreak ere parte hartzen du, Kuadrillako teknikaria denez, bere arloko gaiak azaldu ahal izateko.

Bilkura modu telematikoan ezarri da martxoaren 31ko 11/2020 Errege Lege Dekretuaren Azken Xedapenetako Bigarrenean ezarritakoaren arabera. Horrek Toki-araubidearen oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legea aldatzen du, zehazki 46. artikuluko 3. atalean, organo honen bilkurak telematikoki egitea ahalbidetzeko, aintzat hartuta Covid-19ak egun sortutako ezohiko osasun-egoera.



Kuadrillako presidente andreak, **13:07an**, osoko ohiko bilkura irekita dagoela adierazi du, lehenengo deialdian, idazkariak bilera abiarazi ahal izateko quoruma badagoela egiaztatu ondoren, Eskualdeei buruzko Foru Arauaren (azaroaren 20ko 63/1989 Foru Araua) 25. artikuluan xedatutakoari jarraikiz, besteak beste abenduaren 16ko 57/2003 Legeak aldarazitako Toki-araubidearen oinarriak arautzen dituen Legearen (apirilaren 2ko 7/1985 Legea) 46.2.c) artikuluari lotuta. Presidente andreak hasteko agindua eman du, aztergaien zerrendari jarraituz.

1.- IRAKURTZEA ETA ONESTEA, BIDEZKOA BADA, AZKENEKO BILKURAREN AKTAREN ZIRRIBORROA.

Deialdiarekin batera, egindako azken bilkuraren aktaren zirriborroa erantsi da, hori aztertzeko, eta ez dagoenez inongo alegaziorik, **ERABAKI DA**, aho batez, 2021eko irailaren 8ko bilkuraren akta onestea.

2.- BASKULA HORNITZEKO KONTRATUAREN SUNTSIARAZPEN-ESPEDIENTEA.

Ghiro jaunak jakinarazi du irailaren 8an egindako Tokiko Gobernu Batzarrean kontratua suntsiarazteko espedientea irekitzea erabaki zela, eta hori Sucesores Elías Jadraque enpresari jakinarazi zitzaioela mezu elektronikoko bidez egun horretan bertan, eta irailaren 10ean jakinarazpen elektronikoko baten bidez. 831 2021/30/S02.01.03.02 espedientea ireki zen, hasierako txostenari jarraikiz (**deialdiaren II. ERANSKINA**), eta enpresari eta abal-emaileari jakinarazi zitzaien irailaren 15ean.

Sucesores de Elías Jadraque enpresak irailaren 28an aurkeztu zituen (hamar egun baliodunen baitan) **deialdian III. eta IV. ERANSKINA** gisa eranstean diren alegazioak. Alegazio horiek Esteban Umerez abokatuari bidali zitzaizkion, jakinaraziz batzar hau urriaren 6an egingo zela.

Enpresak aurkeztutako alegazioek azaltzen dute hornikuntzan izandako atzerapenak kontratistari egotzi ezin zaizkion arrazoiengatik dela, merkatuan dagoen materialen eskasiagatik, ez zutela dokumentaziorik aurkeztu egitate nabaria zelako eta administrazio honek ez zuelako eskatu. Rover-Bas hornitzailearen dokumentua erantsi dute; bertan, Elías Jadraqueren arabera, makina fabrikatuta dago eta irailaren 7an muntatzeko aurreikusita dago. Ez dela egokia suntsiaraztea, eta makina eskatutako luzapen-epetan hornitzeko moduan daudela. Espedientea artxibatzea eta eskatutako luzapena onestea eskatu dute.

Esleitutako dokumentazioa irakurtzean honako hau ulertzen da:

Baskularen enpresa hornitzaile Rover-Basek honako hau esan zuen irailaren 16an:



“Aiarako Kuadrillan (Araba) instalatzeko baskula-zubiari buruz, adierazten dizuegu fabrikatuta dagoela, eta irailaren 7an muntatzea zegoela aurreikusita.”

Baskula fabrikatzeko materialen hornitzaile Arcelor Mittal-ek honako hau esan zuen:

2021eko uztailaren 17an eskaeraren arabera 6-8 xafla malkodunen Erosketa Agindua bidali zenigun, baskula-zubia fabrikatzeko. Lehengaien eskasiaren ondorioz, entregak etengabe atzeratu dira, eta hori dela-eta hasieran aurreikusitako entrega-data abuztuaren hasiera zen arren, 2021eko irailaren 1era arte atzeratu da.”

Hornikuntza-kontratua ekainaren 18an sinatu zen, eta entrega ondo egiteko eta baskula funtzionatzen jartzeko epea abuztuaren 2an amaitzen zen. Txaparen eskaria uztailaren 17an, larunbata, egin zen, kontratua sinatu eta hilabete ondoren eta muntatutako baskula entregatzeko epe-muga baino hamabost egun lehenago. Arcelor Mitallen gutunaren bidez ulertzen da eskaera entregatzeko aurreikusitako epea abuztuaren hasieran amaitzen zela eta irailaren 1era arte atzeratu dela, beraz, erosketa agindua egin zenetik edo ondorengo egunetan enpresak bazekien ezinezkoa zela kontratuko epeak betetzea, eta hori ez zuen abuztuaren seira arte jakinarazi.

Lanen plangintzak aurreko baskula desmuntatzea, eremua egokitzea eta baskula berria muntatzea hartzen zuen barne, eta lan horiek ere ez ziren kontratua iraungitzeko epea baino lehenago hasi.

Umerez abokatu jaunaren txostena mail bidez bidali zitzaien batzordeko kideei.

Behin informazio guztia emanda eta eztabaida eginda, aho batez **ERABAKI DA** hartzea **AKORDIO HAU**:

IKUSI DA Sucesores de Elías Jadraque SArekin sinatutako baskula baten hornikuntzarako kontratua deuseztatzeko espedientea irekitzeko txostena.

IKUSI DA Sucesores de Elías Jadraque SA enpresak irailaren 28an (sarrera-zk. 626) txosten hori irekitzeari aurkeztutako alegazioak.

IKUSI DA Esteban Umerez abokatuaren txostena, irailaren 5koa (sarrera-zk. 647) eta aurkeztutako alegazioei buruzkoa.

ERABAKI DA:

LEHENENGOA.- - SUCESORES DE ELÍAS JADRAQUE SA kontratistak Aiarako Kuadrillari ibilgailuak pisatzeko baskula elektronikoa finko bat hornitzeko, instalatzeko eta egiaztatzeko kontratua (ESP.: 831 2021/30/S02.01.03.02) deuseztatzeko espedientearen entzunaldi-izapidean formulatutako alegazioak ezezteak.



BIGARRENA. - Deuseztapen-espeditzea Euskadiko Aholku Batzorde Juridikoari bidaltzea, txostena bidaltzea eskatuz, azaroaren 24ko 9/2004 Legearen 3. artikuluko i) hizkian xedatutakoari jarraikiz, HAKLEOeko 109.1.d) artikuluari lotutakoa.

HIRUGARRENA. - Kontratua deuseztatzeko prozedura ebazteko epea etetea, 39/2015 Legearen 22.1.d) artikuluan xedatutakoari jarraikiz, Aholku Batzorde Juridikoari txostena eskatu (interesdunei jakinarazi beharko zaie) eta txostena jaso (hori ere interesdunei jakinarazi beharko zaie) bitartean igarotako tartean, gehienez hiru hilabeteko epe batez; hori igarotzen bada adierazitako txostena jaso gabe, prozedurarekin jarraituko da.

LAUGARRENA. - Erabakia administrazio-prozedurako interesdunei jakinaraztea.

3.- CESPAREN EPAIAREN IRMOTASUNAREN BERRI EMATEA, BERAUNDUTZE-INTERESEN ONDORIOZ

Ghiro jaunak jakinarazi du Cespak ez duela epaiaren aurkako errekurtsua jarri, eta Epaitegiak epaiaren irmotasunaren berri eman du (**V. ERANSKINA**); hori horrela, irmoa da eta kostuak kalkulatu dira. Ordaintzen direnean, epaileak gure kontuan sartuko ditu.

4.- ONESTEA, BIDEZKOA DA, BEIRAREN BILKETA SOLIDARIORAKO KANPAINAREN PROPOSAMENA, BULARREKO MINBIZIAREN NAZIOARTEKO EGUNA DELA ETA

Arbaizagoitia andreak Ecovidrio kanpainaren berri eman du. Kanpaina hori Laudio udalerrian edukiontzi arrosak jartzean datza, urriaren 13tik 25era. Halaber, Aiarako Kuadrillak kanpaina hori dela-eta aurreikusita dituen beste ekintza batzuen berri eman da.

Jakinarazpena eta eztabaida amaitu ondoren, aho batez **ONETSI DA** honako **ERABAKI** hau hartzea:

IKUSI DA Ingurumen teknikariak proposatutako kanpainaren irismena eta xedea.

IKUSI DA Aiarako Kuadrillarako Ecovidrio jakinarazpen-funtsa 1.545,89 eurokoa dela 2021ean.

IKUSI DA kanpaina 181,2 eurokoa izango dela, eta diru hori osorik jasanaraziko dela 2021eko funtsetan.

ERABAKI DA:



LEHENENGOA.- Onestea POR ELLAS kanpainaren garapena. Kanpina horren zenbatekoa 181,2 eurokoa da, Ecovidrioren jakinarazpen-funtsen kargura; horrela, 1.364,69 euroko gerakina geratuko da, 2021eko abenduaren 31 baino lehen gastatu beharko dena.

5.- ONESTEA, BIDEZKOA BADA, 2030 ESKOLAKO AGENDA LURRALDEKO LAN-PROPOSAMENA ETA BEHARREZKO FUNTSEN HORNIDURA

Arbaizagoitia andreak Aiarako, Laudioko eta Amurrioko 2030 eskolako agendako materialak dinamizatzeko eta sortzeko zerbitzua eskualdeko kontratatzeko planteamendu berriaren berri eman du. Planteamendu berri hori honako honetan datza: aurrerantzean, udal-mailako diagnostikorako materialen prestakuntza, eskolako eskualde-foruaren dinamizatzea eta Aiarako, Laudioko eta Amurrioko osoko bilkurak egitea. 15.000 euroko gehieneko balioa (gehi BEZa) zenbatesten da kanpoko laguntza zerbitzua kontratatzeko. Zerbitzu hori beharrezkoa da 2021-2022 ikasturteko helburuak betetzeko.

Jakinarazpena eta eztatbaida amaitu ondoren, aho batez **ONETSI DA** honako **ERABAKI** hau hartzea:

IKUSI DA 2030 Eskola Agendaren planteamendu berria; tokiko planteamendutik eskualdeko planteamendura igaro da.

IKUSI DA 2021-2022 ikasturtean proiektua prestatzeko eta koordinatzeko kanpoko laguntzaren gehieneko zenbatekoa 15.000 eurokoa dela (gehi BEZa).

IKUSI DA ez dagoela partida espezifikoko bat 2030 Eskola Agendaren proiekturako.

ERABAKI DA:

LEHENGOA.- Eskualdeko 2030 Eskola Agendarako partida espezifikoa sortzea (zenbatekoa: 18.150,00 euro).

BIGARRENA.- Partida hori Laudioko, Amurrioko eta Aiarako Udalen ekarpenen bidez finantzatuko da.

HIRUGARRENA.- Udal bakoitzari dagozkion kopuruak biztanleriaren arabera banaketaren irizpidea aplikatuz kalkulatu dira, Laudio, Amurrioko eta Aiarako udalerrien artean.



6.- GARBIGUNEA ETA TRANSFERENTZIEN GELTOKIA EGUNERATZEKO LAGUNTZA TEKNIKOAREN BEHARRAREN BERRI EMATEA

Arbaizagoitia andreak jakinarazi duenez, bi instalazioen funtzionamenduari aplikatu ahal zaizkien lege-eskakizun berriak aintzat hartuta eta bi espedienteen egoera aztertu ostean, horiek eguneratzeko laguntza teknikoa kontratazeko proposamena egingo da. Gainera, laguntza horri esker, *Next Generation* funtsetarako (laster xede horretarako argitaratuko dira) laguntza-eskaeran sartu ahalko diren hobekuntza-ekintzak zehaztu ahalko ditugu.

7.- EUSKO JAURLARITZAKO EKONOMIAREN GARAPEN, JASANGARRITASUN ETA INGURUMEN SAILAREN LAGUNTZEN DEIALDI BERRIAREN BERRI EMATEA

Arbaizagoitia andreak joan den irailaren 28ko BAOn argitaratutako deialdian gehitutako lan-ildoan eta eskualde-izaerako proiektu-proposamenen berri eman du.

8.- ONESTEA, BIDEZKOA BADA, FUNTZIO ANITZEKO EKIPO BAT ETA INPRIMAGAILU BAT ERRENTAMENDU (RENTING) BIDEZ HORNITZEKO LIZITAZIOA, KUADRILLAREN EGOITZARAKO

Ghiro jaunak jakinarazi duenez, ekainean amaitu egin zen Aiarako Kuadrillaren funtzio anitzeko ekipoaren eta inprimagailuaren rentinga, eta beharrezko da errentamendu hori beste bost urtez eskatzea. Foru Aldundiak pleguak berrikusten ari da, eta horien zirriborroa erantsi da (**VI. eta VII. ERANSKINA**).

Jakinarazpena eta eztabaida amaitu ondoren, aho batez **ONETSI DA** honako **ERABAKI** hau hartzea:

840 2021/32/S02.01.03.02 zerbitzuen kontratazio-espedientea amaitu dela, eta ikusi da kontratuaren eta espedientearen gainerako jarduketan balio zenbatetsia. Bertan, behar bezala justifikatzen dira prozeduraren aukeraketa, kontratua esleitzeko kontuan hartuko diren irizpideak eta Sektore Publikoko Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legeak (aurrerantzean, SPKL) aipatzen dituen gainerako alderdiak.

Espedientearen Administrazio-klausula Partikularren Plegua eta Preskripzio Teknikoen Plegua gehitu dira.



Aiarako Kuadrillako 2021 aurrekontuko **226981** aurrekontu-partidan kreditua dagoela adierazten duen ziurtagiria dago, bai eta Idazkaritza Kontu-hartzaitzako fiskalizazio-txostena ere.

Aintzat hartuta SPKLn ezarritakoa, Aiarako Kuadrillako Tokiko Gobernu Batzarrak honako hau onetsi du:

LEHENENGOA.- Onestea FUNTZIO ANITZEKO EKIPO BAT ETA INPRIMAGAILU BAT ERRENTAMENDU (RENTING) BIDEZ HORNITZEKO KONTRATAZIOA prozedura sinplifikatu ireki kontratatzeko espedientea, KUADRILLAREN EGOITZARAKO (balio zenbatetsia: 18.963,12 euro; BEZa barne).

BIGARRENA.- Onestea kontratazioa arautuko duten Administrazio-klausula Partikularren Plegua eta Preskripzio Teknikoen Plegua.

HIRUGARRENA.- Dagokion partidari beharrezko kreditua ematea, kontratazioaren ondoriozko kuotei eta gastuei aurre egiteko.

9.- DIRUZAINZAKO EGOERA

Ghiro jaunak diruzaintzaren egoeraren berri eman du.

DIRUZAINZAZA	2021/09/29	963.023,25 €
---------------------	-------------------	---------------------

ORDAINDU BEHARREKOAK	650.000,00 €
---------------------------------	---------------------

Urria	400.000,00 €
Azaroa	250.000,00 €

KOB RATU BEHARREKOAK

UDALAK

MANKOMUNATUAK	41.769,41 €
BIZKAIKOAK	1.323,24 €

AFA

--	--

BESTE BATZUK

ENVISER/ECOEMBALAJES/erp	25.557,57 €
--------------------------	-------------



**GUZTIRA KOBRATU
BEHARREKOA**

68.650,22 €

**GASTU OROKORREN ETA BESTE
BATZUEN ZORRA**

	GASTU OROKORRAK			GO+HIR
	2.017	2.021	HIRIGINTZA	
Aiara/Ayala	0,00 €	2.841,62 €	0,00 €	2.841,62 €
Laudio/Llodio	0,00 €	25.977,82 €	0,00 €	25.977,82 €
Amurrio	0,00 €	0,00 €	0,00 €	0,00 €
Artziniega	20,00 €	2.467,58 €	0,00 €	2.487,58 €
Okondo	0,00 €	2.262,39 €	0,00 €	2.262,39 €
	20,00 €	33.549,41 €	0,00 €	33.569,41 €

	GO+HIR	PECO	SUSPERTZEA	GUZTIRA
Aiara/Ayala	2.841,62 €	0,00 €	0,00 €	2.841,62 €
Laudio/Llodio	25.977,82 €	0,00 €	0,00 €	25.977,82 €
Amurrio	0,00 €	8.200,00 €	0,00 €	8.200,00 €
Artziniega	2.487,58 €	0,00 €	0,00 €	2.487,58 €
Okondo	2.262,39 €	0,00 €	0,00 €	2.262,39 €
	33.569,41 €	8.200,00 €	0,00 €	41.769,41 €

Orduña		0,00 €	0,00 €	0,00 €
--------	--	--------	--------	---------------

UDALEN ZORRA GUZTIRA

	ZORRA
Aiara/Ayala	2.841,62 €
Laudio/Llodio	25.977,82 €
Amurrio	8.200,00 €
Artziniega	2.487,58 €
Okondo	2.262,39 €
	41.769,41 €
Orduña	0,00 €
Orozko	1.323,24 €
Arakaldo	0,00 €
	1.323,24 €
GUZTIRA	43.092,65 €



DIRUZAINZAKO SALDOA	DATA		
	21-09-29		963.023,25
	URRIA	AZAROA	ABENDUA
SOLDATAK	48.000,00	48.000,00	100.000,00
GS	17.000,00	17.000,00	17.000,00
PFEZ	25.000,00		
ELKARKIDETZA	3.000,00	3.000,00	6.000,00
HIRIGINTZA	4.000,00	2.000,00	2.000,00
JUNDIZ TASA	70.000,00	70.000,00	70.000,00
LEASING	6.341,88	6.341,88	6.341,88
HONDAKINAK	199.200,00	90.500,00	90.500,00
SARE SOZIALAK			20.000,00
LAGUNTZA TEKNIKOA	8.750,00		8.750,00
PECO			140.000,00
BESTE BATZUK	15.000,00	15.000,00	15.000,00
ORDAINKETAK, GUZTIRA	396.291,88	251.841,88	475.591,88

DIRUZAINZAKO SALDOA	566.731,37	414.889,49	-60.702,39
---------------------	------------	------------	------------

**EGITEKO DAUDEN DIRU-
SARRERAK**

FFFEL	100.000,00		
-------	------------	--	--

EGITEKO DAUDEN DIRU- SARRERAK, GUZTIRA			
	100.000,00	0,00	0,00

DIRUZAINZAZA			
	666.731,37	414.889,49	-60.702,39

**10.- AFAK TURISMOARI EMANDAKO LAGUNTZEN
EBAZPENAREN BERRI EMATEA**

Joan den irailaren 14an, AFAk turismoan inbertitzeko laguntza-eskaeraren aldeko txosten egin zuen (zenbatekoa: 29.176,84 euro) eta irailaren 21ean turismorako 2021erako COVID laguntzen eskaeraren aldeko txostena ere egin zen, eta Kuadrillak eskatutako 52.000,00 euroak jaso zituen.

Inbertsioen kasuan, dirulaguntzen laukia honela geratu da:



	HORNITZAILEA	AURREKONTUA	EMANDAKO DIRULAGUNTZA	KUADRILLA
TXAKOLINAREN IBILBIDEA	ZHURA DESIGN	16.108,13 €	12.174,23 €	3.933,90 €
INFORMAZIO TURISTIKOA	ADI GRAFIK	14.849,12 €	11.222,70 €	3.626,42 €
STAND	ADI GRAFIK	4.586,21 €	3.466,17 €	1.120,04 €
STAND	BAIMEN	475,00 €	359,00 €	116,00 €
EKIPOAK	AIARA INFORMÁTICA	2.586,38 €	1.954,74 €	631,64 €
		38.604,84 €	29.176,84 €	9.428,00 €

Alamillo jaunak proposatu du eskualdeko seinaleetika txostena egitea, seinaleak erosi aurretik, Molinuevo jaunak jakinarazi du Amurrión orain dela bi urte egin zela.

11.- ESKAERAK ETA GALDERAK

Eskuza jaunak eskatu du Dendatik Etxera proiektuari publizitate handiagoa ematea udalaren sare sozialetan eta aldizkarietan.

Eta beste gairik ez dagoenez, bilkura amaitutzat eman da goian adierazitako eguneko **14:00ak** direnean. Era berean, presidenteak eta neuk, aldi baterako idazkariak, izenpetu dugu akta hau, eta neuk idatzitako guztia egiaztatzen dut.

**KUADRILLAKO PRESIDENTEA. ENCINA CASTRESANA ASTARLOA.
BEHIN-BEHINEKO IDAZKARIA. GIANFRANCO GHIRO ALONSO**

**ELEKTRONIKOKI SINATUTAKO DOKUMENTUA
DOCUMENTO FIRMADO ELECTRÓNICAMENTE**